

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA

1821

68/2017 DEKRETUA, apirilaren 4koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak Bilboko Portuko Agintaritzaren Administrazio Kontseiluan duen kide bat berritzeko dena.

Estatuko Portuei eta Nabigazio Zibilari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen irailaren 5eko 2/2011 Legegintzako Errege Dekretuak interes orokorrekotzat jotako portuak arautzen ditu atariko tituluaren II. kapituluaren; eta Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan, Bilbokoa eta Pasaia-koa sartzan ditu portu horien artean.

Estatuaren lurralde-antolaketa ikusita, eta interes orokorreko portuek bakoitzak bere autonomia-erkidegoan duten eragin ekonomiko eta soziala kontuan hartuta, aipatutako Legegintzako Errege Dekretuak zenbait neurri ezarri ditu erkidegoek portu-agintaritzen antolakuntzako egituratan parte-hartze handiagoa izan dezaten, agintaritza horiek baitira portuak zuzentzen dituzten organo publikoak.

Estatuko Portuei eta Nabigazio Zibilari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen irailaren 5eko 2/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 30.1 eta 30.2 artikuluan ezarritakoaren arabera:

«1.– Administrazio Kontseilua hurrengo kideek osatzen dute:

(....)

b) Berezko kide batek; kide hori itsas kapitaina izango da.

c) Gutxienez 10 eta gehienez 13 kidek. Kanariar eta Balear uharteetarako, ordea, 16 artekoa izango da kopuru hori. Autonomia-erkidegoei edo Ceuta eta Melilla hiriei dagokie kopurua ezar-tzea, baita kideak izendatzea ere.

2.– Autonomia-erkidegoek edo Ceuta eta Melilla hiriek, aurreko paragrafoko c) idatzi-zatian aipatu diren kideak izendatuko dituzte hurrengo irizpideak errespetatuz:

a) Estatuko Administrazio Orokorra ordezkatzeko dute itsas kapitainak ez ezik, beste hiru kidek, eurentariko bat estatuko abokaturia izango dela, eta, beste bat, Estatuko Portuak erakunde publikokoa.

b) Autonomia-erkidegoa kide horietako lauk eta lehendakariak ordezkatzeko dute.

c) Kanariar uharteetan, kabildo bakoitzak ordezkari bat izango du, eta, Balear uharteetan ere, kontseilu bakoitzak ordezkari bat izango du.

d) Portuko zerbitzugunea hartzen duten udalerriek kontseiluaren gainerako kideen % 33ko ordezkari-tza izango dute. Zerbitzugunea udalerrri batean baino gehiagotan kokatuta egonez gero, ordezkari-tza, lehenik, portu- agintaritzak administratutako portuari edo portuei izena emandako udalerriri edo udalerriei egokituko zaie; ondoren, gainerako udalerriei, zerbitzugunearen eragin-pean duten azalarekiko proportzioan.

e) Kontseiluko gainerako kideen % 66 honako hauen ordezkari-tzari egokituta izendatuko dira: Merkataritza, Industria eta Nabigazio Ganberei, orain Merkataritza, Industria, Zerbitzu eta Nabigazio Ganbera-Ofizialei, enpresa- eta sindikatu-erakundeei, eta portuen arloan garrantzi handia duten sektore ekonomikoei.

2017ko apirilaren 10a, astelehena

Kideen izendapena nahitaez egin beharko da administrazio-kontseiluan ordezkatura dauden administrazio publikoen eta erakunde nahiz antolakundeen proposamena kontuan hartuta. Estatuko Administrazio Orokorraren kasuan, proposamen hori Estatuko Portuak erakunde publikoaren lehendakariak egingo du.

Administrazio-kontseiluko kideen izendapenek, 1. paragrafoko c) idatzi-zatiak aipatutakoek, lau urteko iraupena izango dute, berriztatzeko aukerarekin, hurrengo paragrafoan ezarritakoari kalterik egin gabe.

Kontseiluko kideak kargutik kentzea autonomia-erkidegoko organo eskudunak erabakiko du, mahaikide horiek ordezkatzeko dituzten organizazio, antolakunde eta erakundeek hala proposatuta».

Ondorioz, Eusko Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legean, eta Merkataritzako Nabigazioari buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen irailaren 5eko 2/2011 Legegintzako Errege Dekretuan ezarritakoari jarraituz, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegituretako sailburuaren proposamenez, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2017ko apirilaren 4an egindako bilkuran gaia aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.– Antonio Aiz Salazar jauna Bilboko Portuko Agintaritzaren Administrazio Kontseiluko kide izendatzea berriro, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegituretako Saila ordezkatzeko.

AZKEN XEDAPENA

Bilboko Portuko Agintaritzaren Administrazio Kontseiluko presidenteari bokala berriro dela jakinarazten zaionetik aurrera izango ditu ondorioak dekretu honek, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

Vitoria-Gasteizen, 2017ko apirilaren 4an.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburua,
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.